



Elorrioko udala

Kul t u r a

2026 URT. 02

Zkia / Nº 006

ALKATEAREN EBAZPENA

**ARIZPEKO LAGUNARTE KOFRADIA ETA ELORRIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA
ETA DIRULAGUNTZA ONARTZEA.**

Ingurumena Landa Garapeneko zinegotziak eta Arizpeko Lagunarte Kofradiak, Gazeta auzoko "Erregenak" jaiak antolatzen dituenak, adostutako hitzarmen-proposamena ikusi da.

Kultura teknikariak kofradia horren eta Elorrioko Udalaren arteko hitzarmen eta dirulaguntzari buruz idatzitako txostena ikusi da.

Udal kontu-hartzaileak emandako txostena eta kontzeptu horrengatik dirulaguntzari aurre egiteko RC gastu-fasearen kontabilizazioa ikusi dira.

Alkatearen azaroaren 20ko 666/2025 Dekretuaren bidez, María Herrero Arriolabengoa lehen alkateordea izendatu da alkatearen ordezkotzat, 2025eko azaroaren 20tik 2026ko urtarrilaren 7ra arte, biak barne, alkatetzak berezko dituen eskumen guztiak bete ditzan.

Jarduneko alkate honek EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Ebazpen honetan aipatzen diren eskumenak bereganatzea, 2023ko ekainaren 26ko 338 dekretuaren bidez Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetuta, urgentzia eta administrazio-arintasuna direla eta, ez baita aurreikusten gobernu-batzarra 2026ko urtarrilaren 9ra arte egitea.

Erabaki hau Tokiko Gobernu Batzarrean izendatutako pertsonen jakinaraztea, eta jakinaraztea eskumenak bereganatzeko erabakiaren aurka ezin dela errekurtsorik aurkeztu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10.2 artikulua arabera, hargatik eragotzi gabe prozeduraren ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak.

BIGARRENA.- Onartzea Arizpeko Lagunarte Kofradia eta Elorrioko Udalaren erantsitako arteko hitzarmena eta alde bien sinaketa bultzatzea.
Hitzarmenaren edukia, hitzez hitz, akordio honen I. eranskinean agertzen da.

HIRUGARRENA.- Onartzea Gazetako Arizpeko Lagunarte Kofradiari gehienez 5.500 euroko dirulaguntza ematea, 2026ko Gazetako "Erregenak" jaietarako. Ordainketa epe bakarrean egingo da, kofradiak zuriak aurkeztu duenean.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Arizpeko Lagunarteko Kofradiari eta Udal Funtzen Kontu-hartzaileari bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezkeen eta ondorioak izan ditzaten.

ETA BETE DADILA

Elorriko, 2026ko urtarrilaren 2an

Firmado digitalmente por
MARIA HERRERO (R: P4803900B)
Fecha: 2026.01.02 14:49:53 +01'00'

María Herrero Arriolabengoa
Abokazioz erabakia
JARDUNEKO ALKATEA

Fede ematen dut

AMAIA ABANZABALEGUI
ARANGUREN -

Firmado digitalmente por
AMAIA ABANZABALEGUI
ARANGUREN
Fecha: 2026.01.02 14:54:45 +01'00'

Amaia Abanzabalegui Aranguren
Idazkaria



Elorrioko udala

Kul t u r a

I. eranskina

**ELORRIOKO UDALAREN ETA ARIZPEKO LAGUNARTE KOFRADIAREN ARTEKO
HITZARMENA**

Elorrion, 2026ko urtarrilaren 2an

BILDURIK:

Alde batetik, MARIA HERRERO ARRIOLABENGOA andrea, NAN [REDACTED]
ELORRIOKO UDALEKO Jarduneko Alkatea (IFK P4803900B)

Eta, bestetik, A [REDACTED] A [REDACTED] A [REDACTED] jauna, NAN [REDACTED] ARIZPEKO
LAGUNARTE KOFRADIAREN (IFK G48687271) presidentea.

Hitzarmena sinatzeko batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa AITORTU
ONDOREN, honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Kofradia Eusko Jaurlaritzaren elkartearen erregistroan eroldatu zela 1994ko irailaren
15ean eta Elorrioko Udalaren elkartearen eroldan inskribatu zela 2012ko irailaren 27an.

II.- Barne estatutuen 2. artikulua arabera, elkartearen helburuen artean honako
hauek daudela :

- kultur eta kirol ekintzak antolatzea
- gastronomia sustatzea
- urteko jaiak antolatzea

III.- Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri Erregulatzailerak onartu zituela 2008ko
abenduaren 18an batutako Udalbatzaren Ohiko saioan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean
2009ko martxoaren 9an argitara eman zirenak). Honako aldaketak izan zituen:
lehenengoa, Udalbatzak 2010eko otsailaren 11n onartu zuena (eta BAO on maiatzaren
10ean argitara emana) eta bigarrena, Udalbatzak 2011ko abenduaren 28an
onartutakoa (BAO on 2012ko otsailaren 10ean argitara eman zena).

Elorrioko Udalak bere 2026ko aurrekontuko dirulaguntzen eranskinean Gazetako
Arizpeko Lagunarte Kofradiarentzako 5.500 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusten
du, hitzarmen bidez arautzekoa dena, Gazeta auzoko jaiak antolatzeko.

IV.- Elorrioko Udalak lankidetzaren esparru bat formalizatu nahi du Arizpeko Lagunarte
Kofradiarekin aipatutako jarduerak sustatzeko eta interes komuna bideratzeko, hots,
Elorrioko kultura dinamizatzea, betiere auzoaren, kofradiaren eta elkartearen
tradizioarekin zerikusia duten jai eta ekitaldiak. Horrexegatik, ondorengo lankidetzaren
hitzarmena izenpetu dute ondoren zehazten diren baldintzetan.



Elorrioko udala

Kul t u r a

1. XEDEA

Dirulaguntza hau erakunde onuradunak, Arizpeko Lagunarte Kofradiak, antolatu eta garatzen duen "Erregenak" jaiak finantzatzen laguntzeko erabiliko da, izan ere, jaiok dira Gazeta auzoko jai nagusiak, urtarilaren hasieran ospatzen direnak.

2. DIRULAGUNTZAREN IZAERA

Dirulaguntza izenduna denez, funtsak ezin zaizkie aplikatu xedean adierazitakoa ez den beste izaera eta/edo helburu bateko gastuei. Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, beste edozein erakunde publiko edo pribatu batzuetatik etorrita ere, baina jasotako funtsen zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

3. ALDEEN BETEBEHARRAK

a. Elorrioko Udalaren konpromisoak

- Elorrioko Udalak gehienez 5.500 euroko dirulaguntza ordainduko dio kofradiari. Ordainketa 4140.481.04 diru-ataletik egingo da.

b. Arizpeko Lagunarte Kofradiaren betebeharrak

- Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan (Alderdi Politikoen Jarduera Ekonomiko-finantzarioa Kontrolatzeko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazketan) ezartzen den onuradun izaera lortzeko debekuetako baten eraginpean, eta, bereziki, egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritakoak, xedatzen diren betebeharrak betetzea.
- Administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik egiteagatik zehapen irmoa ez jaso izana.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa ez edukitzea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.
- Kideak onartzeko prozesuan edo bere funtzionamenduan genero edo sexu-arrazoiengatik diskriminazioarik ez egitea.
- Juntan edo zuzendaritzan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua EGBLren 27. eta 28. artikuluek ezarri bezala.
- Gazeta auzoan urtaril hasieran Erregenak jaiak antolatzea, urtero izaten duten izaera antzekoarekin.
- Egitarraren berri Udalari ematea eta iragartzeko erabiliko den kartela erantsi. E-postaz egin ahal da, kultura sailera bidalita.



Elorrioko udala

Kul t u r a

- Kasuan kasuko udal-zerbitzuek jarduera egiaztatzeko eta jarraipena egiteko eta finantza-kontrola egiteko egin ditzaketen jardueren men egitea.
- Helburu bererako jasotzen diren diru funtsen berri ematea Elorrioko Udalari, nahiz eta jasotze hori Udalaren dirulaguntza jaso ostean gertatu.
- Ekintzok iragartzeko publizitatean Elorrioko Udalaren logotipoa agertzea ondo ikusteko moduan eta ahoz adieraztea elkarrizketa eta antzekoetan.
- Honako hizkuntza irizpideak betetzea:
 - o Udalarekiko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak, ahal den neurrian, euskaraz burutzea.
 - o Publizitatean zein iragarkietan euskara ziurtatzea.
 - o Jendaurreko ekitaldietan, prentsaurrekoetan, sari-banaketetan, ekitaldietako megafonia erabiltzen den kasuetan eta abarretan euskara ziurtatzea.
 - o Bozgorailu bidez ematen diren mezuak ere euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan ematea. Mezuak lehenengo euskaraz ematea.
- Honako berdintasun irizpideak betetzea:
 - o Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusiboa erabiliko du, non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko beste edozein komunikazio-elementu. Pertsonen aniztasuna irudikatzen duten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.
 - o Hasierako proiektuan zein justifikazio-memorian informazio hau jasoko da: generoaren arabera bereizitako onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta horien profila (adina, dibertsitate funtzionala duten pertsonak... edo beste datu interesgarri batzuk).
 - o Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.
 - o Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokaera transhomofobikoa saihesteko eta arreta egiteko neurriak izango dituzte.

4. KUDEAKETA ORGANOAK

Dirulaguntza hau kudeatzeko organoak Elorrioko Udalaren *Kultura Saila* eta *Hirigintza, ingurumena eta landa garapena* batzordea dira.

5. INSTRUKZIOA

- Jaiak ospatu eta fakturak ordaindu ostean, kofradiak eskaria aurkeztuko du Elorrioko Udalaren egoitza elektronikoan 2026ko ekainaren 30a baino lehen.
- Eskariak honakoak jasoko ditu:
 - o Ekintzen oroitidazkia. Jai egitarauan jasotzen diren ekitaldi guztien partehartze maila, arrakasta eta intereseko bestelako jakingarriak.
 - o Jaiak iragartzeko erabili diren kartelak, esku-orriak eta abarren kopia bana.
 - o Balantze ekonomikoa. Orri batean zehaztuko da ekitaldi

bakoitzaren diru sarrera eta gastua. Eta guztira ere bai. Diru sarreretan ez dira ahaztuko jarduerak burutzeko jaso diren beste dirulaguntza batzuk, publiko zein pribatuak.



Elorrioko udala

Kul t u r a

- Ordaindutako fakturen kopiak.
 - Aitorpen erantzulea (hitzarmen honen eranskineko eredua).
- Kultura Sailak dokumentazioa behar denean osatu eta gero, aztertu egingo du, besteak beste gastu lagungarriak eta ez-lagungarriak bereiziz.
 - Gastu lagungarriak: folklorea, musika emanaldiak, kirol ekintzak, erakusketak, hitzaldiak eta lehiaketak, artisautzari lotutakoak, umeentzako antzerki, magia eta ipuin kontaketa, gastronomia, ekitaldietarako muntaia eta azpiegiturekin zerikusia dutenak, SGAE, instalazioen zertifikazioak eta bestelako gastu derrigorrezkoak.
 - Gastu ez-lagungarriak:
 - Ez dira diruz lagunduko kidetasun ekitaldietatik eratorritako gastuak, hala nola elkarteko kideen bazkariak, ezta elkarrearen xedearekin zerikusirik ez duten bidaiak ere.
 - Ez da inbertsio-gasturik finantzatu.
 - Ez dira finantzatu jardura bati egotzi ezin zaizkion funtzionamendu orokorren gastuak, hala nola posta-kutxa, material suntsikorra, banku-komisioak eta antzekoak mantentzea.
 - Ez dira diruz lagunduko berdintasunerako udal-sailaren, udaltzaingoaren, ingurumenaren edo beste batzuen txosten negatiboa duten jarduerak.
 - Animaliekin etikoak ez diren ikuskizunak barne hartu dituzten jaiei ez zaie dirulaguntzarik emango.
- Hirigintza, ingurumena eta landa garapena informazio-batzordearen eskuetan utziko du dirulaguntza proposamena horrek Tokiko Gobernu Batzarrari irizpena eman diezaion.
- Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da.

6. ITZULKETA

Xede bererako beste diru-sarrera batzuen berri izanez gero, Udalak emandako dirulaguntza birformulatuko du eta, gainfinantzaketarik izanez gero, dirulaguntza bera edo haren zati bat itzuli beharko du.

7. HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmenak urtebeteko iraupena du. Bi aldeetako edozeinek hautsi ahal du hitzarmena beste aldeari horren berri emanez.

8. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (DLO); 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (DLO), Elorrioko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza eta dirulaguntza publikoak eta administrazio-prozedura arautzen duten toki-araubideko gainerako legeak eta Elorrioko

Berdintasunerako Ordenantza (2023ko azaroaren 25ean Osoko Bilkuran onartuta)

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko



Elorrioko udala

Kul t u r a

Legearen testu bategina onartzen duena.

9. DATU-BABESA


Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera, eskatzaileari jakinarazten diogu emandako datu pertsonalak honela tratatuko ditugula:

- Arduraduna: Elorrioko Udala - dpo@elorrio.eus Datuen babeserako ordezkaria: Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus
 - Helburua: 2026an Elorrioko Udalak auzoetako jaietarako ematen dituen dirulaguntzak kudeatzea.
 - Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren ondoriozko legezko betebeharra
 - Kontserbazioa: Datuak aipatutako helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, betiere artxibatzeko araudi aplikagarriak ezartzen duena errespetatuz.
 - Hartzaileak: Arduradunak datuak jakinarazi ahal izango dizkie gaian eskumena duten agintariei.
 - Eskubideak: Pertsona eta elkarte eskatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo eramateko eskubideak erabil ditzakete, idatziz, Elorrioko Udaleko erregistrora edo Datuak Babesteko ordezkariaren helbide elektronikora (dpo@elorrio.eus). NANaren edo sinadura elektronikoko aitortuaren kopia erantsi beharko da.
- Era berean, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Adostutakoari lekukotasuna emateko, sinatzaileek hitzarmenaren bi ale izenpetu dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ARIZPEKO LAGUN ARTE
KOFRADIAREN izenean

ELORRIOKO UDALAREN izenean

 Firmado digitalmente por 
MARIA
HERRERO (R: P4803900B)
P4803900B Fecha: 2026.01.02 14:51:53 +01'00'

Izp: A  A  A 

Izp: MARIA HERRERO ARRIOLABENGOA



Elorrioko udala

Kul t u r a

1. ERANSKINA: AITORPEN ERANTZULEA

Eskari honekin batera adierazten dut (markatu beharrezkoa):

- ☐ Bertan adierazitako informazio guztia egiazkoa dela.
- ☐ Kofradia ez dagoela dirulaguntzak jasotzeko ezintasun egoeran, oinarri espezifikoan 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestelako dirulaguntzak direla-eta, honakoa aitortzen dut (bata edo bestea markatu beharko duzu):

- ☐ Kofradiak, xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik eskatu edo eskatzeko asmoa ez duela.
- ☐ Kofradiak, xede berbera finantzatzeko hurrengo dirulaguntzak eskatu(ko) edo jaso dituela:
- a. Nork emana? _____ Kopurua: _____
- b. Nork emana? _____ Kopurua: _____
- c. Nork emana? _____ Kopurua: _____

- ☐ Kofradia Zergetako eta Gizarte-Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.
- ☐ Kofradiak ez du administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa.
- ☐ Kofradiak betetzen ditu martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritako betebeharrak guztiak.
- ☐ Indarrean den Elorrioko Udalaren Euskararen ordenantzak 34. artikuluan arautzen denaren arabera, ekitaldi publiko guztietan euskararen presentzia bermatu dela ekitaldietan bertan, publizitatean, aurkezpenean, agurrean eta abarretan. Horretarako kontutan hartu dira ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzule potentzialak eta erabili edo banatuko den materiala.

Elorriko, 2026ko _____-aren _____-(e)an.

Sinadura:



Elorrioko udala

Kul t u r a

2. ERANSKINA: DOKUMENTAZIO ETA DATU EGIAZTAGARRIAK (Ez dira aurkeztu behar)

Elorrioko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen interesdunen datuetan, zuk berariaz kontrakorik esan ezean (kasu honetan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).	
DATUAK ETA DOKUMENTUAK	UKO EGITEN DIOT (markatu bidezkoak direnak)
a) Eskatzailaren NAN / IFK	
b) Zerga-betebeharrak egunean izatea	
c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean izatea	
Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut:	(Data, sinadura, lizen- abizenak, NAN, noren ordezkapenean)
Baimena ematen dut lehen adierazitako datuak kontsultatzeko (a, b eta c atalak)	(Data, sinadura, lizen- abizenak, NAN, noren ordezkapenean)



Elorrioko udala

Kul t u r a

3. ERANSKINA: GASTU DIRUZLAGUNGARRI ETA EZ DIRUZLAGUNGARRIAK.

DIRUZLAGUNDUKO DIREN EKINTZAK		
<i>ekintza</i>	<i>kontzeptua</i>	<i>zelan justifikatuko den (guztia Kofradiak ordainduta)</i>
Herri kirolak	Dietak Txapela + garaikurra Hamarretako + bazkaria	Diruzainaren agiria Faktura Kirolari eta laguntzaileei emandakoa, sozietateko tiketa
Karta-joko txapelketak	Sariak: janari eta edaria + txapela + garaikurra Kartak	Sozietateko tiketa (janari eta edaria) eta faktura (txapela + garaikurrak) Faktura (txapelketarako karta joko berriak erosi behar izaten dira, bertan irekitzeko paketeak).
Dantzariak	Luntxa	Sozietateko tiketa
Intxortara igoera	Janari eta edaria	Ekitaldi irekia da eta sozietateko tiketaz justifikatuko da.
Ikuskizun eta zerbitzu profesionalak	Emandako zerbitzua: kontzertuak, haur parkea,... Musikarien jatordua Meza ospakizuna ematen duenaren jatordua Haurrentzako txokolatada Erregen egunean	Ordaindutako fakturen kopiak Sozietateko tiketa Sozietateko tiketa Sozietateko tiketa
Aurreikusi gabeko ekintzak		Diruzainaren agiria Faktura
DIRUZLAGUNDUKO EZ DIREN EKINTZAK		
<i>ekintza</i>	<i>zergatia</i>	
Auzo bazkaria	Ekitaldi irekia ez izategatik	
Txopo altxatzea	Oier Olagorta zinegotziak azaldu die ekitaldi hori auzolanetarako dirulaguntzetan eskatu ahal dutela	

